


Gogalben-erakasbidea









GOGALBEN-ERAKASBIDEA



M-8554

R-36228

ATV
18291

JAUNGOIKO - ZALE'REN IDAZTIAK

ROOHTHAAN AITA JUAN

JESU LAGUNDIKO LENENGO - BURU ZANAK

EGINDAKO

GOGALBEN - ERAKASBIDEA

LAREA'TAR'NIKASI, APAIZAK, EUSKERATUTA.



JAUNGOIKO-ZALE'REN IRAKOLAN

ZORNOTZA - AMOREBIETA

1923

Victoriae 23 Maji 1923

Nihil obstat

Lic. Petrus de Anasagasti.

Censor.

Imprimatur

Victoriae 23 Maii 1923

Vicarius generalis.

Dr. Joseph. Leontius O. de Farate

ITZ-AUÑEA

Irakurle: Oñ idazti (liburu) edera eskutan; ikusi ta irakuri zazu; ez-bai gabe zure biotza poztuko da: bai, Jaungoikoa lagun, zaletu ere ain ederañak ain bearañak diran egiak gogoan arturik, biotz - bareneraño sartzera. Ez dakit ori baño gauza bearañagorik ote dan ere. Otoi-egitea bearañ bearañ dala entzungo zendun askotan; egi-egia da: Josu-kistok esan zuan ezkerok: «Petite et accipietis; eskatu ta artuko dezute» beraz eskatugabe ez dezute artuko; onetarako bide bakaña otoia. Eta otoia nolaz egin? an izan bearañ dan begirune zuzena ta abarañ gogalbenak erakusten du; beraz otoi ondo egiteko bearañ-bearañ gogalbena. Gañera gure bearañak, gure utsak, Jaungoikoak eskatzen diguna, Berak nai duana, au dana jakiteko, gogoratu bearañ, au egingabe ezin eskatu ondo; onetarako ere, au da, otoi, bearañ dan eraz, egiteko, gogalbenena bearañ-bearañ. Ez bada ikaratu Jainkoaren

maitatzaile izan diran guziak gogalbena ta gogalbena beren mendekoei agindu dielata; ez beren onuak ez-entzun egiñik, zuretzat ez dirala-ta, aldebat utzi; beren mendeko ezpazera, adizkidea bai beintzat, eta adizkidiei ere berdin agintzen die. Gauza on asko, irabazi neurigabeak aterako ditugula gogalbenetik esaten dute... beraz ekin biotzon gogalbenari; ez gelditu, aurrera beti; eta len ainbat atzera eragiten zizuten etsai oinpean arkituko dituzu, ta zure biotza oso-osorik Jainkoaganatuta, zeretzat irabazia, baita zure ikasbideak eraginda beste oñenbeste egingo dutenentzat ere. Oñá Roothaam Josu-lagun ospetsuak labur eta zintzo guretzat egin zuan *Gogalben - Erakasbidea* euzkeldunen eskutaratzean jañi nai izan ditudan itzak: beste itz beañik ez da.

Askotan entzun ez dezun itzen bat arkitzen badezu, ez itsi idaztia, ez esan aditu-eziña dala, aspaldi gure erian bizi-biziak ziran itz zañak eta suster indartsuetatikoa izanik. Gogoratu, entzun dezu; ortik gogalbena=*meditación*. Itz au esateko aspaldi Mendiburu Jesu-lagunak gogañtea

jañi zuan, eta gogalbena-egiteko, gogañtea egin. Baita gogañtea egiteko gaiari otoitz - gaia esan ere. Etzaitezela aseñetu *anima* edo *arimearen* ordez *gogoa* jañi dedalako, zerbait ikasi duten guziak aspaldian ongi dakiten itza au baida; guk gogoa degula esanik beraz, *arimea* baid degula esan nai det; baña ez izan gure gogoa gogo-utsa, gorputzari bizia emateko egiña bai ordea; Jaunak an goian egin zituan gogo-utsak, gorputz-gabeak; aiek dira *aingeruak*; aiek beriz onak izan ziran asko, besteak ez; augatik laburki *aingeru* onei esaten diegu *gotzonak*. Au bakañik ez da. Sañitan entzungo zendun noski *distraitu*, *ejenploa*, por *ejenplo etcetera*. Emen itz eñazak jañi dira *ikasbidea*, *adibidez*, *eta abañ*. Soñeko-gaiak etxean eukirik, iñori eskatu izan diogu. Etxean, gure euskera zañean, geunkan naikoa gai *santua*, *santidadea*, *perfección*, *pekatua* esateko, ta alaz ere ez oañtu: oñ beraz, lengo sustraitik datozkigun itzak, *donea* ala *deuna* (santua), *dongea* Jaunarekin ezer izan nai ez duana: *donetasuna* (santidad) *osotasuna*, *onbe-*

tea (perfección), *obena* (pecado); onak izateko, deunak izateko oitura deunak be- ar, *ekandunak* edo *birtuteak*. Gogalbena asi *auretik* gauza batzuek egiteko dira, auen izena beraz eñaza, *auretikoak*. Gogalben zatiei askotan *sailak* esan diegu eta *esumiñari azterketa*, *azterkaldia*. Auek buruan ariturik, ez estutu, idazti edo liburu osoa pozik irakuriko dezu; len dakizunez osterera, itzak ikasita, urengorako lan gutxiago, ta uste gabe aureratuko zera. Berak, Jaunak, lagun deizula, irakurle, eta zu zerala-ta lan egin duan adizkide onen aldez otoi-egiozu Jaun Berari.

Azterkaldi berezia egiteko era, Eneko Deunak Gogo-iñarkunetako idaztian erakutsi zuanez.

Igandea

Astelena

Astearte

Asteazkena

Osteguna

Ostirala

Larunbata

Goizean, jaikitzean, gizon-emakumeak erabaki bear dute, arduraz beren buruak zaitzea, kendu nai dan obena egingabe. Bazkal ondoan Jaungoikoari eskatuko dio laguntza zenbatetan uts au egin duan oroitzeko; eta bere buruari galdetuko dio, jai ki danetik asita azteřkaldi onetaraño; jař iko du bi leřotatik lenengoan zenbat aldiz uts-egin duan eta erabakiko du auřera koan oneratzea. Apal-ondoan beste azteř kaldia egingo da, lenengotik asita; gero, egin dituan utsak egun bertako bigařen leřoan jařiko ditu.

Zenbaitek obetzat dute idazti baten utsak jařtzea; idazti onetan asteko egun bakoitzarako zenbakiak daude, betik gora jasotzen dira berauek.

Oařa: 1^o Gizon-emakumeak uts bere zia egindakoa, jaři beza eskua bulař alde an, uts-egiñaz garbai edo damu dala; askoren auřean ere onenbeste egin diteke, iñor oařtu gabe.

2. Egunoroko lenengo leñoak lenengo azterkaldia adirazten dualako eta bigarrenak bestea, ikusi beza, iluntzean, lenengo azterkalditik bigarenera oneratu al dan.

3. Lenengo egunetik bigarenera dagon aldeari begiratu, au da, eguneko azterkaldi bi, auruko egunekoaz, eta ikusi egun batetik bestera zuzendu dan.

4. Aste batetik bestera duan aldeari begiratu, ta ikusi zuzendu al dan.



GOGALBEN-ERAKASPIDEA

Oaía. Gizon-emakume deunen jakintzatiko bikañenetakoa da gogalbena, ta gizonen esanaz eta jakitez baño, asmo onez eta Gogo-Deunaren esan ezindako igurtziz geyago ikasten da berau. Aditu, beraz, gogalbena ondo egiteko, Jaungoikoari etengabe eskatu bear' zaio-la eska' au: *«Jauna, otoi-egiten erakutsi zaiguzu... erakutsi gogartea-egiten. Gogo Deunaren eska'ak on dana jakinazo deigula. Ta Gogo-Deun Berak auxe eskatu dezala esan ezindako intziriz. Inork ere Josuren izen eztsua bear' dan eraz ezin esan badezake, Gogo Deunak lagundu gabe»*, nolaz aritu ongi ta beroki *ordubetean* goi gauzetaz gogartea-egiten, Gogo-Deun Berak, aurea artuta, ez berotzera? Oía, beraz, gogartea ongi egiteko lenengo lana, Jaunari eska'á eskatzea beroki, auxe da gogalbeneko jakintza. Egiz esan diteke,

gogartea egiten jakitea eta ongi egitea, egin zaigun deiaren eskaña ta iraupena aña dala, oren bikaña ta beña da emai au! oregatik ezin iñoiz ere geiegi eskatu. Eskaleak lei andiz lanari ekingo lioke, au egiñik ez-bai gabe aberaztuko dala uste izatera. Zenbat biziroago ta gogokiago eskatu beñ ote degu beraz gure gabea arindu ta ezkutatuko duan gauza, ez ordea gorputzekoa, au baño andiagoa, gora-bera andiagokoa dana, edo gogokoa? Ezin dezakegu uste izan, Jainkoak alatzaz emango digula gogarte-emaia, artarako bideak guk artu gabe. Otoi-dagigun beraz gogoz, etengabe ta Jaungoikoak gure eskariak entzungo ditu.

Ekandunan (oitura deunetan) aurertzeko gogo bizia degula ustez, augabe edozein ekiñaldi alperik da-ta, adirazi dezadala laburki, Jainkoa lagun, gogarte-emaia irizteko guk egin beñ deguna.

Gauza batzuek otoi-auretik egin beñ dira, besteak otoi-ostean, zenbait beñiz otoialdian: lenengoak aurenez aifatuko ditugu.

I BURUA

Gogarte-auřetik egin bearř dana

Bitakoa da gerřkuna (preparación) urřna ta urřutikoa: (próxima y remota): lenengo uarřan zerbait esan degu onetzaz, gogoko bizieran auřeratzeke asmo sendo-bizia (gogartea ongi egin nai duanarentzat bearř - bearřa) berez gerřkunikonena dalako. Ala ere, gaia obeto adirazteke, aitutzen ari gerřan gerřkunaz oarř bereziak jarřiko ditut. Auxe da, gogalberna ongi egitera, ta, *eragozkaiak* kenduta, bera erřazagotzen duten bide ta laguntzak bilatzera ta erabiltzera leiatzen duan gogokera. *Eragozkaiak* jakiřnak dira: arřokeria ta norberaren andi-ustea; *Jainkoaren itza*, *zintzo-apalentzat dalako*. *Apalei begiratzen die jaunak*, arřoak berřiz urřutira lez ikusten ditu: aizunkeria (hipocresía) edo ez dan eraz agertu-naia ere eragozkaia da: *gogo zuzena ez da gizon emakume usteleratuko*. Gogoa zaletuta daukaten obenak ere eragozkaiak dira; *goitiko jakintza ez dalako gogo gaiztoaganatzen*, *ezta obenpean*

da gon gorputzan bizi ere: gorputzaren mirabetsa aitatu dan ezkerro, ongi adirazten zaigu, gotzonei (aingerua) dagokien ekandun edeñaren aurrez diran oben eta utsak dirala, batez ere, Gogo Deunagandiko eskañaren eragozkai izugarriak. Eragozkai andia da gogoa bildugabe ta zentzunak arduragabe, egunez, eukitzea; izan ere irudimena uskeriz beteta daukanak ezin adi-adi ta beroki gogartea egin; beti besteratuta daudenak, ez beren egin bear txalogarriakatik ordea, baizik jakingura geiegiagatik, eragabe ta beste utsegatik; auek ere ezin. Gogartetik irabazi andia atera nai dutenak, eragozkai auek eta auen antzekoak arduraz kendu bear ko.

Gogalbena irabazkor egiteko laguntzak geienetan dira, aitaturako okeren aurrez diran ekandunetatiko egipenak; edo apaldasun, zintasun, zentzumenen arduratikoak eta abar, onetxek dira gogoko naretasunaren etor-burua, gogartea egiteko onela gertuaz eta goitiko eskerak guganatzan dituzte. *Zoriontsuak biotz garbidunak, Jainkoa ikusiko du-*

telako; onetatikoak argitu oi ditu Jaunak otoi-aldian.

Ildurapena ere onetako egoki-egokia da, Jainkoari gogarte - emaita erosteko neuria bera da; onelaxe gertatzen dala ere baidakigu, geiena ilduratzen diranak otoi-atsegiñik bikañenak izaten dituztela; bestela, beriz, ilduratzen ez diranak. Baidirudi Jaunak atsegin andiagoz ematen duala ain beroki iritsi nai deguna ta edozein nekez, baita gure gorputzarenaz ere, iristera leiatzen gerana.

Egiz, gogartea egiteko gerkun urutikoa dala esan degun gogaldi edo biotzaldi au, ezin iritsi gogartea egindakoan baizik, askotan bertatik irabazia da; baña oartu bear da, gogaldi edo biotzaldi ark mala asko dituala, ta ongi gogartea egin nai duanak, euki bear, lenengoak beintzak. Gogoko bizierari ekin nai diotenak ere, aureratzeke gogo zintzoa izan bear dute; onetarako, ez bes-tetarako, Kistoren lagundiratu giñan.

Gerkun uñenari dagokionaz, Eneko Deun gure Aitaren erakaspenetatik artutako arau auek jariko ditugu.

Bigaramoneko otoitz-gaia izango danna, aurreko gabaz, irakurri ala entzun adi-adi, gure gogaldiari jarraiz atera naidegun irabazia buruan degula.

Oeratuta, lotara baño len, gai au berau laburki bururatu bear.

Goizean esnatutakoan, egikizun dagon gogarteia izan dedila gure lenengo oldozpena (pensamiento).

Garbitzen ala oi diran beste gauzak egiten ari geranean, piztu ditzagula oldozpen berauek eta egikizun daukagun gogarteko biotzaldiak sutu ditzagula.

Azkenik nare-nare ta geldiro otoitzera gaitezen; asi baño len, *Aita gurea* esateko aña garaian, gogoa Jaungoikoa-ganatuta, gogoratuko degu, Kisto aurrean daukagula, gure egikizunari begira. Gogoratu bear, noren aurrean gauden eta nori itz-egingo diogun; ondoren, belaunikatu aurretik, siñismen biziz, irudi-meneratu dezagun Jaungoikoa aurrean dagola, bere begirunez baren-barenekoak aztertzen eta ateratzen. Esan degu belaunikatu aurretik, Jainko-irudipen au ez dalako otoitz-aurea, aureragokoa

baizik, otoitz oron auretik egin bear dan eraz. Oar au orelako alegiñaz jari degu, askok begiratzan ez diotela dakigulako, ekiñik otoitzari belauriko, lasterregi, ia zarapastaka, egikizuna gogoratu gabe.

Gora-bera andikoak dira aitatu diran oarak, guziak betetzen dituanak gogartetik irabazi andia aterako duala jakin beza, gutxi betetzen dituanak gutxi, guziak zearo usten dituanak, batere ez. *Otoi-auretik gogoa gertu ezazu, Jainkoa aztartzen duanaren antzik ezazu nai izan.* Gogarte aurerako esan diran egitekoak eragin dizkigu Eneko deunak, berak etzituan, inoiz, egingabe utzi, otokera berezia gogartetarik goiena (contemplación) euki azen; ikasbide onetatik atera dezakegu, aitatu dan gerkuna sail guziekin egitea dan egokia, ain gutxi otoitzera oituak geralako, bestetik beriz gure gogoa ain ezez besteratu ta zabalitzen dalako.

Beraugatik agindu ta beteazi bear da ixilune osoa ta gorpuzkera zorotza, batez ere gabaz oeratu auretik eta goizean gogartera baño len, auetako edozein

utsek, esan dan garaian, indar andia dualako gogarterako; beraugatik asko ondatu dezake, ez bakarrik uts aiek egingakoan gogoa edatzen dalako, baita uskeri aien eruz Jainkoak bere Erukia gugandik kentzen dualako.

Berebat gogarteia egiteko gerkun urenetzat artu diteke, egikizun daukagun otoia Jainkoari eskeintzea goizean *Jesus* ikustean, eta *Maria* neschutzaren (Birjinarren) laguntza eskatzean gurekin garai artan izan ditezen.

II BURUA

Gogalbenan oartu bear dana

Iru zati edo alditan banatuta dago gogalbena: auek dira, askaldia (asiera), artea ta azkena, edo sarkaldia (sarera) aurerapena ta amaia; orotzaz bereziki itz-egin bear

§ 1

Askaldi edo Sareraz

Askaldi edo sareraz adirazten da,

egingo dan gogar̄teko irakur̄gai aur̄etik dagon dana.

1. Apal-apalki, belauniko jauresten da Jainkoa, gor̄putzeko gaitzeren batek ber-
au ez eragoztera; onelakotan bar̄endiko
agur̄ak are andiago izan bear̄. Ara go-
gar̄tea dagienaren lenengo egikizuna;
berau biotz-biotzez egiteko, ger̄kun ur̄e-
naz itz-egin danean esan dana ezin utzi,
au da, egikizunaren eta aur̄ean dauka-
gun Jaunaren gogorapena siñismen biziz
begiraka, beraz, gure aur̄ean donokia
(zerua) idekita balego lez, eta bertan
Aundientza neur̄igabeko Jaungoikoa go-
tzonen (aingeruen) eta gizon-emakumeen
erdian agiri balitzaigu bezin ondo, gure
egikizunari eta otoiari begiraka: alaño-
ko siñismen zintsoz Aundientzaren aur̄ian
auzpeztu gaitezela; onelaxe al degun ber-
oen oi dan ger̄kun-otoia esan dezagula.

Gogar̄te aur̄eko ger̄kun-otoiak, jaur-
eskundeaz ostera, edo Jainko - Andien-
tzaren eta gere ezerezaren ezagueraz ga-
ñera, berekin bear̄ du gere obenen (peka-
tuen) garbai edo damua ta otoi guziak
onetan berdin, ta azkenik geron eta gere

almenen eskeintza eta gogartea ongi egiteko Jainko-laguntza eskaria. Auek guziak aoz aña biotzez egin bear: gerkun-otoia beñere ez aldebat utsi bear ezta, ustegabeko eragozkaia dala-ta, berandu samar otoitzerako geranean ere.

Otoi-auñerako dira, Eneko Deunak *auñetikoak* izentzat jañi zienak ere, bi bai beintzat; lenengoa da irudimenari pixkat lagunduz, oarñkabeak (distracciones) erazago kentzeko. Auñetiko oni Eneko Deunak *toki-irudipena* deitu dio (composición de lugar); beraren bidez gogartea dagienak otoi-gaia auñean izango du; adibidez, Kistoren gurutzal-bena gure otoitz-gaia bada, irudimeneratu dezagula antxe gaudela ikusten, gere auñez-auñe, gure Jauna gurutziltzatuta, zauriz josita, gorputzalde guzitatik odol-la dariola bi lapuñen erdian. Neskuts deun - deuna gurutze ondoan Jon (Juan) deunarekin, Madalenekin eta beste emakumeekin; irudimeneratu dezagun, bestetik, Jaungoikoari iseka (burlaka) dagon dongetalde izugaria. Gogartea *Jesusen* jaiotzaz izatera, irudimeneratu estalki

zar'dun txabola utsa, zokoan azka bat, eta bertan aur'-sapietan bilduta, oyuzka samurak egiñaz, Jainko-Aurá: antxe Jose deuna ta Maria Neskutsa, gogarteari badagokio artzai batzuek ere bai. Lu'eko gauzak erakutsiaz oso onurako'ra da *toki irudipena*; berauetan irudimena ezarita ez gera e'rez beste gauzetaratzen; otoi-aldian beste gauzetara joko balu be'riz, askaldian egin duan irudipeneratu liteke; adi-adi zenbait gauzari begira daudenei onenbestetxe gertatzen zaie, ots batek ala edozer gauzak beste aldera begiratzotzen badie, oar'tutakoan, azte'rtzeko asmoa zuten gauzari be'riro begiratzen diote. Oar'tu bear orain, ez dala gaia irudimeneratu bear onelakotan margotuta (pintado) balego bezela, gertaldia eunka urte lenagokoa balitz ba'ño areago, bestela oso, gere aurean gertatu balitz bezin bizi'ro: adibidez, Bethlehengo txabolara ala Kalbari-mendiratuta, gere begiz ikusita gere entzumenez dana entzungo bagenduke ba'ño areago, gure aurean dana gertafuko balitz bezin bizi'ro.

Otoitz-gaia gorputz-ikusmenez ezin

ikusia balitz, obenaz ala ekandunaz gogártea balitz, adibidez, *aurético* onek ez du asko laguntzen, gogártean asi dana irudimen biziduna ez izanik; alaz ere onelakoetan *toki-irudipenen bat* egin ditekete; onela, obenaz gogártea egiteko, gogoratu dezakegu, Eneko deunari jarraiz, gure gogoa gorputz-baruan espetxe ala itxitegian balego lez arkitzen dala, ala gizon-emakumeak abere artean erbestetuta daudela; berebat irudimeneratu dezakegu obena, mamu bildurgarri nas-kagarriaren antzera: bear bada askoz obeto irudimeneratu ditzakegu obenaren ondorenak, obendiarentzat (pekatarientzat) egiña dan geztokiko (inpernu-ko) sua, zorigaiztoa beriz etsaiaren mendean burniz lotuta, ia oñaze-leizeratuta. Oartu bear da, irudipen edo *aurético* aukerako egunetik artu bear dirala, ez ordea asko aldi baterako, ta irudipen-bila nekatu gabe: ezer ere irudimeneratzen ezpa-zaigu, gogal-gaia bururatzea aski izango da, *auréticoaren* ordez.

Jesu-Kisto gure Jaunaren esariaz-edo gogártea egingo danean, lenengo *auré-*

tikoa egin diteke Irakasle-Jainkoaren ikasle ta aditzaleen artean jarita gaude-la irudimeneratuta, otoikizunazko erakaspenna bere aotik entzuteko. Berebat Idazteuneko (Sacra Scriptura) itzetzaz gogartea danean, irudimeneratu bearko Idazti - Egile deunagandik entzuten ari generala, ta berauek gogartea egiten ari danari goitik bereziki emanak dirala.

Bigarren *auretikoa* onetan *dago*, gogarte ongi egiteko eskaia eskatzen, ez ordea zer nai dan izendatu gabe, au gerkun otoian egiña baida, ezpada bereziki, iritsi-nai degun irabazia gogartetik ateratzeko; onetarako eskatu beark degu argia adimenerako ta beroa naimenerako, ezagutu ta nai dezagun; obenaz danean gure gogarte, eskatu ditzagun laguntzak, anako kaltegarri zaigula-ta nai sendoz botatzeko ta goroto izateko. Oregatik, Jainko-Notiñei eskatzeko era geritu izan beark, egingo dan gogarteari dago-kiona bereziki ezariaz.

Gertaldiren batez gogarte degunean, dio Eneko deunak, aitatu diran auretikoaak baño len edesti (historia) osoa go-

goratu bear degula, onen ostean *toki-irudipena* ta laguntza-eskaria; onelakoe-tan iru auřetiko izango dira. Askaldi edo sařera onetarako, au da jaureskundera-ko, gerkun-otoirako ta *auřetikoetarako*, lau bost bat iroiren (minuto) geienaz as-ko dira.

§ 2

Gogaldi edo jařaipenaz.

Gogaldi edo jařaipenak artzen du gogařte osoa, au da, gogoratuko diran sailak, berauek geienetan bi, iru ala lau izan bear, sail auek aztertzen eta neur-tzen eta berauetatik iritsi uste dan gogo-ko irabazian dago, egiz, gogařtea. Sai-len banaketaz ez degu ezer oarřtuko, berauek ondo jařita diran idazti ala idaz-kietatik arřtu oi diralako; esan bear da-na da otoitz - gaia nola zabaldu, gogoa nola aritu otoikizunan, nola gelditu ber-tan, irabazia nola bilatu ta atera, gogař-tzen dana gure gogokerari nola ezaři.

Eneko Deunak dionez, iru almenak erabili bear dira gogařtean, oroimena,

adimena ta naimena; auek ondoera bilita gogarteá ondo egingo da, edozein zailetan erabili ditezke ta irakurí diranetatik bat bakara gogarterako naikoa gai izan liteke.

1. Oroimena nola erabili

Almen onek, lenengo auréticoan eraldu zuan eraz, otoizt-gaia beriztu bear, baña aldeak baiditu. 1. Otoitz-gaian ez da gai osoa gogoratzen, auréticoan egiten dan eraz, gogoratuko dan sailan arkitzen dana bakarik. 2. Auréticoa baño geldiroago ta ardura geiagoz egin bear gogorapen au; adibidez, gogarte-gaia esaria danean, iruditzen zaigu auréticoan, guri Jaungoikoak adirazten digula ala goitik guretzat gertua dala berau; otoi-aldian osterá oroimena onela erabili bear da: esari ura guretzat esana dalakoz eta berau gogoratuaz ¿nork esaten digu? ¿zer? itz bakoitzak adirazten duana aditzeko alegiñaz. Onela oroimena erabilitakoan, bidea gertutzen du, adimenak egingo dituan gogorapenetarako.

Gertaldiren bat gogoratzen badegu, ere ez dedu aurretikoan egiten danez, oso-osorik gogoratu bear, gogalbenan dagon saiekoa bakarrik; ez da naikoa batean dana beriztea, geikiei (circunstancias) adi-adi begiratu bear, artarako galdeak egiteko ango notin, toki, gauza, garai, bide, zegatik eta eratzaz egiteko. Alde onetantxe batez ere galde auek guziak egin bear adimenak, au dana neurtutakotan, obeto oldoztu dezakelako, nai dan irabazia atera dezan. Irakasgai ala gertaldi batez orain jariko diran ikasbideak ikusi.

Jesu-Kisto gure Jaunaren esari au izan dedila gogarte-gaia. «Ludi osoa irabazita ere zer zaie gizon-emakumeai, gogoa galdu ezker?»

Lenbiziko aurretikoari dagokionez, irudimeneratuko det Jauna bere, Ikasleen erdian neri ere itz-egingo balit bezela, esanaz. «Zer zaiote gizon-emakumeei?» ta abar. Oroimena onela erabili diteke: Nor da itz-egiten..? Jesu - Kisto Bera... betitandiko egia ta jakintza dana, goitiko gaizkakunde - Irakaslea (maestro de salvación)... ez nau bilduritu nai, ezta

estutu ere... ni gaizkatzea nai du... Josuk, beraz, esaten dit: Zer zaie..? esango balu bezela... ezer ez... edozeñi *ludi osoa irabaztea*: ludi osoa beretuta ere, aberazki, omen eta atsegiñak bereak balira ere... onetan beste lagunik ez-palu ere... ezertarako ez, ilezkoña, betirako dan gogoak... kalte izatera, obenez betirako minperatzen bada. Auxe da dakiguna... onela dio Jesu - Kisto gere Jaunak... ta ala uste det betitandiko Egi gezur-tatu - eziña da-ta. Ezer-ezertarako ez, gizon-emakumeentzat, lurreko on guziak, bertako goralbenak, atsegiñak... gogoa galtzen badu... Auxe da Jesu-Kistok erakutsia. Egiz lur osoa igarokoña da... gogoak ez du azkenik... gogoa betirako da... zoriontsu ala zorigabe... baña betirako... Izango du ludiak azkena, baita ospeak bazteña, bere uskeriak eta aberaskiak ere bai... dana amaituko da, egunen baten gauza auen guzien azkena izango da, ta egiz, pixkaten berauen ona artzea ezertarako ez... geiago ez dira azalduko-ta. Amár, ogetamar, berogei urtetan adur ona, gauza gu-

zitan, izanda ere... gutxi-gutxik oi dute...
alaxe iritsiko balu ere... zertarako izan-
go det nere gogoa galdu ezkerro? Urte
auek igaroko dira... azken-garaia eldu-
ko zaie... ta gogoa? oraindik biziko da
ta beti-beti! gaizkatuta ala geztokiratuta,
zoriontsu ala zorigabe, azkenik ez du
iñoiz-iñoiz izango... Alaxen da, ludi
osoa irabazita ere ezer ez, gogoa gal-
tzen duan gizon ala emakumeak...

Gogorapen auek, esango da, ezin
ukatu ere, adimenaren egitekoak dirala,
baña etzaio ardura. Aitatu dan esaria
adimenak zabaldu dezake ta gogarte
dagienaren gogokerari ezari.

Gertaldi bakaraz gogorapena danean
oroimena nolaz erabili, beste ikasbidean
jariko det, bide batez lenengo aurretikoa
jariaz, bien aldea ikusi dezagun.

Josu-Kistoren gurutziltzapena gogora-
turik, sail auek oartu bitez: 1. Jesu Kistok
izan zuan gorputzeko oñazea. 2. Bere
izen onak eramana zion. 3. Bere go-
goaren oñazeak. *Aurretikoak* artuko du
laburki gertaldi osoa; oroimenak beriz
gogarteko saila besterik ez.

Lenengo aur̄etikoa. Kalbari-mendian jařita, begiratuko diot gurutzetik zinzilik, oraindik asnaska, lapur̄ biren erdian, alde guzietatik odol - tantaka dagon Jesu -kistori. Jainkoari ir̄ika ta biraoka ari dan ia er̄italde osoa oartuko det... ikusiko ditut beren arpegiak aseřez gor̄ituta, entzungo ditut beren mar-mar eta deadařak... il garaian dagon Jesusek deadařka dio: «Ene Jaungoikoa, ene Jaungoiko ori! zergatik utzi nazu? Aur̄etiko onek esan diran iru sail dauzka, labur̄ki, Oroimena erabiltzean, beraz, bat bakařa artuko da, besteak utzi. Adibidez:

1. *saila.* *Jesu - kistoren gorputzeko miņa.* Gurutzetik zinzilik Jauna... Aiek miņak, aiek oņazeak daramazki!.. Gorputz osoa zaurituta, odolduta!.. *Egiz ez du edertasunik, ezta gizakerarik ere...* ez dauka zauri gabe zati bat ere, oņetatik buru tontořera... Bai gogořki zaurituta daudela bere gorputz zatiak!.. burua arantzaz josita, bekokia ertz zořotzez igarota... odolez bustita begiak... mala-tuta, ilori arpegia... beasunez naigabetuta aoa, bulařaldea... bizkařa, saietsal-

deak... besoak... eta iztarak izugarri zaurituta zigorkadaz! zati askotan aragia atera baida, ezurak agiri zaizkio... esku ta oñak iltzez zulatuta, eta bere zainariak zauri sakonaz astindu ta miñarituta daudelarik, zinzilik dago... bizirik... or-dubete, bi, irutaraño. Oñaze bildurgarriak! Izatez oben gabe, deuna, erugabea dan Josukistok ainbeste darama!.. Obengabea, Deuna, Ona Ber-bera izanik... Jainko-gizona dan Josu-kistok... Giza-diaren Gaizkatzaleak... maitasun neurigabez maitagarri danak!.. Gotzon edo aingeruen poza dan Jesusek, donoki edo zeruko aingeruen ain maitagarri dana, ain gaizki artzen dute gizon - emakumeak! Onenbeste egiten utzi die, ala erabaki du Betitandiko Aitak! Zergatik ote? Ez bere obenagatik, batere iñoiz egin ezpaidu, iñoiz ere utsik egin ez dualako ta ezin egin ere; gizon-emakumeen obenagatik... nereakgatik (au ta uragatik) Jesus - Jainkoak alako miñak daramazki; ta obengabea dalarik, daramazkien oñazeak ainbeste ta alako zakarak izanik, alaz ere ixilik, espatugabe

(quejarse) dago... ta gañera or̄enbeste oñazeren bide ta emale diranei ez die goꝛotorik, maitasun neur̄igabea bai. Onelaxe gertatu ziran auek, ala erakusten digu Jainko-Siñisgaiak, onelaxe siñisten ditut eta sendoki, Jaungoikoaren agerpenak edo Itzetatiko siñisteak ala erakusten digulako; egi au beriz betitandikoa ta ezin gezuꝛtatua da.

Geienetan onelaxe erabili diteke oroimena. Ez dago beste gauzetaratu bear̄ik, almen onen erabiltzeari dagokiona geienetan gogaꝛte idaztietan jaꝛtzen da-ta; gogarte egiten ari danak alaz ere beti gogoratu ta aditu bear̄ du aztiro, ez ariñegi, oroimena erabiltzea otoi - aldian egingo diran oar̄ eta biozkadaen euspenna dalako, ala berauen azia ta suster̄a; oꝛegatik, dagokion eraz gogoa erabiltzen ezpada, oar̄ osasungaꝛi asko galduko dira.

Emen oar̄tuko degu, ta zuzen alaere, idazti-egileak askotan agintzen dutena, au da, oroimena erabiltzean egin ditza-gula siñispenak aukeratu dan gertaldiaz; sendoak, sakonagoak izango dira onela

egingo diran oarák eta naimenari eragitekoko indar geiago izango dute; augatik aitatu diran ikasbideetan egoki sartu ditugu ekandun artatiko egipenak.

2. Adimena nola erabili.

Oroimena lagun, gogarte - gaia esan dan eraz irudimeneratu ondoren, adimena -lanak izaten dira, beronen bidez, ark bururatu dizkigun egiak gogoratzen dira, ditugun bearai jarraiz: erabaki - egikorak egiten dira berauek zergatik diran gogoraturik eta bururatzen zaigu egi auekiko gaurdaño nolaz izan geran, ala nolaz izateko ustea degun aurerakoan. Au dana adimena egin dezake asko jakingabe, edonork, batere jakingabea izanik ere, goitiko eskaña lagun, érez gogoratu dezakelako esan dana. Goiargi ta gogorapen oiezak baño egiteko diran erazpen egikorak bearaigo gogartean. Eraza, ta jakingabeen alari dagokiona da saritan agintzen dana, au da, nor-naik zintzo gogoratzen badu, berak erantzun dezaken galde érazak bere buruari egitea. Galdeak onetakoak dira. «Gogal-

gaiaz eta oroimenak oroitu duanaz, zer gogoratu bear da? Egiteko ar্তুko ditugun asmoak zein dira? Zergatik beteko ditugu? Zelan bete izan ditugu oraindano? Auřerakoan zer egin bear? Zer eragozkai ditugu kendu bearak? eta onetarako bideak? Galde onetako bakoitzari dagozkion itz batzuek jařiko dira.

**Otoi-gaiaz edo gogarte gaiaz
zer gogoratu bear da.**

Gogarte gaiko sailan degun egiren bat oartu dezagun. Sail baten asko oi dira geienetan, auetatik gogarte egiten ari danak, banaka ar্তু ta gogoratu ondoren, bere buruari ta gogaldiari esariko dizkio. Onela, adibidez, len jaři dan esarian: Gizon - emakumiei zer..? gogarte egiteko bi egi ditugu gutxienez. 1. Ludi osoa irabaztea uskeri txara da. 2. Gogoaren ona ala txara gora-bera andia egiz, gizon-emakumeen zoriona ala zorigabea bertatik dira-ta. Berebat gauza asko dira gogoratzeko ta neurtzeko Jesu-Kisto gurutzalduaren miñetzaz, au da,

oroimena erabiltzean esan diran aña gal-dera, adibidez, gaia, notiña, zergatik? era... ta abar; geiki onetzaz gogarte egiten ari danak beste orenbeste galdetu dezaiokelako, ta bere buruari esari. Arturik, beraz, lenengo geikia, onetzaz galdetu diteke: *Zein dira betetzeko ar- tuko ditudan asmoak?* eta abar. Beste orenbeste geroago, bigaren, irugarren eta osterontzeko gogorapenak egitean.

Atera bear degun ikasgai betetzekoa

Sail onetan gogoratuko da gogarte gaiaren egia sendo jaritakoan egingo dana, au da, gogarte egiten ari danak nola batu bere egikizunak otoitzgaiak eskatzen duanari: adi-bidez, len bururatu dan esariaz: «Zer zaie gizon - emaku- mee eta abar» lenengo eraldu dan as- moa auxe izan da, ludi osoa irabaztea uskeri txara dala: galdetzean, beraz, emendik zein asmo atera bear dan, be- tetzeko, edonork ezez erantzun dezake: «Beraz ludi osoa ta bertako dirutza ure- tzak, bertako omen eta atsegiñak uske- ria dira; auek guziak, ludi osoa irabaz-

tea, ezertarako ez da izango-ta. Beraz, ezta ludi osoa gureganatzearen ere, ezta bertako aberaski, omen eta atsegiñak-gatik ere, ez du gogoak kalterik izan bear, eta Jaungoikoari oben-egin, luřeko on txikiagatik, andiuste pitiñagatik, gizon - emakumeengandiko goraldur - nai zoroagatik, aragi - atsegin lizunagatik, anbat gutxiago».

Gora-bera andikoa da oarřtea, gogařtea egiten ari danak sail onetan, batez ere, atera bear duala bere bizierari dago-kion asmoa. Asmo zabalegia, geienetan asmo uts: jaři dan ikasbidez norbaitek asmotzak aterako balu «ludi osoa oin-petuko det» beste gauza berezigabe, al-perik erabakia izango litzake noski. Onelako asmoak jo-muga gabe botatzen diran dunbadaen antzekoak dira; ořelakoak ez diote arerioei kalterik egingo, ezta ařesiei luřa jo-azi ere. Berebat, bereziki ezarřten ez diran asmo zabalegiak ez dituzte ondatzen gogoko-etsaiak, ezta girñak menderatu ere, ezta ařesi antzeko eragozkaiei luřa-jo-azi ere; aizea bakarik urarřten dutela dirudite.

Ezta asko edozein gauza berezira jotzea ere, egokia zaigun asmora jo bear eta gure obenen sorburu ala berauetatik sortu diran gauzei erantzi bear egikizuna dan gaia, baita Jaungoiko - mirabetzan eragozkai dan edozer gauzari ere; adibidez, jañi dan ikasbideko asmo zabalak: *beraz ludi osoa ezetsi edo oinpetu bear; beraz ludi osoagatik ere ez egin bear nere gogoari kaltegarri zaiona; beraz nere gogoa galbidean utzi baño ludi osoa galtzea obe;* asmo edo atera diran erabaki auek norberak bere bizierari ala bear bereziari erantzi bear. Andi-uste zaleak onela erabaki bear du: «ludi osoa ezetsi bear bada, are geiago ez ote det ezetsi bear nere egite onak loituta, nere gogoari kalte izugarria egiten dion ume-kerizko andi-ustea? Ludi osoko goralbena eskuan banu, gizon-emakume oro nitzaz ondo ta goraka itz-egingo baluteke, ezertarako ez goralben au dana: zenbat gutxiagorako izango ote det bada, itz-egiten diotedan bat, bi ala banaka oiek ni goraltzea, neri txalo jotzea?» Au egiñik igaro liteke andi-usteak geia-

gotan loitzen dizkion egitetara, us-zalekeriak eragiten dizkion utsetara; adibidez, andi-ustez noizipein bere utsak ezkututzen ala estaltzen baditu, gezuéz eta *aitzakiz* batzuetan berauek goraltzeraño: *Zer zaio...?* Gorputz zale geiegiak, goxo ta ondo zale diranak onela gogoratu dezakete: «Ludi osoa ez izanik, bera-gatik gure gogoak artzen duan kaltea aña; ludi osoagatik, bere txuriketa guzi-egatik obenik egin bear ezpadegu; aibat gutxiago galdu bear gure gogoa lasaikeri bategatik, une baten aoran degun goxoagatik; eta ludiko atsegiñak izatea ezertarako ezpada, zenbat gutxiagorako ote da atsegin ariñaz gure gorputza txurikatzea? azkenik, ludikeria ta bere atsegiñak oinpetzeko badira, areago izan bear jatekeri edo gorpuzkeri ori betetzea». Emendik norberak aztertu litzake bereziago, gorputz ala jatekeriak eramanda, saritan oben-bidea arkitu duan gauzak. Lekai-biziera (vida religiosa) zaila zaiotenak, zenbait egitei bizi-aztunak, nardagarri - neketsuak iristen diotenak, baruko biziera gogortzat ar-

tzeraño: onelakoak egi au, jañiko dan eraz, beren buruei erantzi dezaiokete: «Gogoa gal-zorian jañi baño ludia lenago galdu bear dala dio Jesu-Kistok: ez da beraz zuzena eragozkai au alaiki garaitzeko alegiñak egitea, emai bikain-bikaña dan deia, nere betiko osasunaren baitasuna, galtzea baño? ¿Zertarako da neke ori gabe izatea, gurutze ori ez eramatea, izateari nardagañi zitzaizkion egitekoak egingabe ustea, nere gogoari kalte egiten badiot, geroago deia ta gogoko osasuna galdurik, azkenik min izugañiak beti-beti eramango baditut? Egoiki izango da oneratzean, geienetan izaten ditugun eragozkaiak, kezkatzen eta atsegabetzen gaituztenak, banaka ta geldiro azteñtzea. Onela egi bat era askotara ezarñi liteke, norberak dituan bear aldiei dagokienez, asmo zabaletik norberaren bizierari geiago ikutzen dioten asmo bereziak atereaz. Egiz esan diteke, gogañtetiko irabazirik andiena oar ori begiratzetik iristen dala, añañoa da bera.

Asmoa betetzera zerk laguntzen duan.

Oneratzean oartu ta aztertuko dira gogartean beartzat artu deguna egitera lagunduko diguten bideak, onela sendoago ta biziagoak izan ditezen biziera obeagorako asmoak. Naimenak adimenari jaraitzen dio: adimenak gai baten ona ta zer dan ez ezagutzera, naimenak gogo gutxi berau artzeko. Okeretik zergatik iges egin, ekandunak zergatik iritsi, berauek betetzeko oi diran eragozkai eta nekeak zergatik adorez garaitu? Auek dira gaiaren *edeña*, *egokia*, *atsegiña*, *eñaza*, *beña*, ta gure gogoari eragiteko ta berotasuna emateko izan liteken edozer. Auek guziak, ala oietako zenbait, gogarteko sailera ekañi beañ dira, artu degun asmoa betetzeko.

Edeña esaten diogu egoki, eraduna danari; orela gogoratuko da gizonak, *kristauak* (kistotañak), lekaidiak zer egin beañ duan. Gogartea egiten duanak gauza auek orotan zegati ugari-indartsuak arkituko ditu. Une baten ere ezin aztu guk

degun kristotar ala kristau izenaz, berau bakarrik ere onerako indar andiduna da -eta. Kristotar izena nai duanak, Kristorena izan nai duanak zein oker, txiki-ena dalarik ere, utzi bear ez du? Nolako ekandunari, nolako onbide ta donetasunari jaraituko ez dio, ekandun eta donetasunaren ikasbide Jesu - Kristoren ikasleak? Zein eragozkai eta neke, are geiago, nolako atsegabeak, andienak izanik ere, nolako ezespenak eta jasarikundeak (persecuciones) biotzonez garaitu ta eramango ez ditu Jesus gurutzalduaren ikasleak? Egia Kristotar edo kristau izena naikoa da, gogoia ar-tara jartzeko ta indar andiz oneratzeko, Jaungoikoaren eskaia lagun; izen auxe bakarrik izango da oldozkun jaunzaleen, biotzaldi apalen eta ekandunik goienerako nai sutsuen etorburu ezin aitua.

(Gai) *Egokiak* berekin ditu, atera dan ikasgai aren egikizuna bete ta zaitzeak iritsiko dizkigun gogoko ondasun guziak; gogoko ondasunak, esan det, betiko diranak, osterontzekoak, izatez-gañekoak ezpadira, zegati utsak dira-ta. Ore-

gatik ildurak egin-gabe uztea, Buru diranei ondo egitea, anai-arebai atsegin ematea ta abar ez dira gauzatzat artu bear; zegatik auek okeak dira, onera ana okeera eraman dezakete; egizko ekandunaren maitatzale baño donizun (hipocrita) geiago egingo ditu: aitatu diran zegati batzuei begiratu litzaieke, izatez-ga nekoei ezariak diranez; beti ordea neuriz, zegati auen gain jarria izan ez dedin ekanduna. Izatez - gañeko ondasunak, beraz, gogoratu bear; adibidez, ikasgai oni jarraiz «oben eta uts asko egingabe biziko naiz» ainbeste baruko kezka ta asaldapen ez ditut artuko; gero ere garbitokian (purgatorio) ez ditut alako min luzeak eraman nai; barunbea (conciencia) nare euki nai det; ekandun - egipen asko egingo ditut, oietako bakoitzak nere eskaia Jaunaren begietan geituko du, baita geroko bizitzarako irabaziak ere, Jaunaren auerako aberaztuta; nere eskeingai txiroentzat Jaungoikoaren onspena iritsiko det, azkenik beriz Bera goraltzeko gai egokia izango naiz». Onetan gogoratu ta egiteko asmo bakoitzan izan ditez-

ken egizko on, sendo, izatez-gañekoak esan ezin aña dira; gogañtea egiten ari danak, berari biotz-ikara andiena eragiten diotenei jañaitu dezaioke. Bi gauza naguzi aurrean euki beñ dira: lenengo, egingabe utziko dedan gogoko gaitza; bigañen, neretzat ala iñorentzat iritsiko dedan ona; idatzita dago, *okeña egiten duanak bere gogoari goñoto diola ta Jaungoikoaren bilduñ danaren gogoa zorientzua, eta bere egite orotan zori-ona izango duala.*

Atsegiña dala, diot, gogoratu degun ikasgaia betetzen badegu izango degun asetasuna. Jaungoikuak nai duan biziera ez da iluna; negañ-toki onetan egizko poz antzik bada, Jaungoikoaren esana zintzoki egiten duan gogoak du berau.

Israel, nere aginduak aditu baziñuz, ibaiko urbizi narearen antzekoa izango zan zure gentzaldia, itsas - uiñak añaakoa zure poza. Bestela oso dongeei (impíos) zorigabea eta garbaia (damua) beren bideetan, gentzarako bide-txiuñik ere ez dakite. Auek eta onelakoak jañ ditezke gogoaren bidetzat, berak ekan-

dunari jaraitu ta auñeratu dedin; gizon-
-emakume deun oroen oar-ikasiak ber-
auek egiztatu bai ditu, are geiago baitin
dira.

Eráza. Jesu - Kisto gure Jaunak esan
duan ezkerro bere uztaria biguñā dala eta
bere zama ariñā, berau bizkar gañean
artzen dutenei gogoko narea ta gentza
agindu dielako, itz au gezurtatu ezin;
neronek egia dala oar-ikasiko det, Jain-
koaren uztaria edo Goizpar - legea (1)
(ley evangélica) nere gain artuta zearo
betetzera alegiñak egiñaz, au da, nere
bizkar gañean artu ta eramana.

Agindu batzuek bete bai ta besteak ez
bizi diranak, esku bakañaz bezela legea
eramana nai dutenak, ez diote ariñā iritsi-
ko Legeari ta eroriko dira. Norbaitek
beraz zama oni aztuna baderizkio, osor-
ik artu nai ez dualako da au, Jaungoi-
koaren aginduak ez dira aztunak. Don-

(1) Ar zazute nere uztaria ta ikasi nigandik
biotz apal-biguiñā det-eta. Ara egiteko itza. Ta
zeon gogjentzat nare-aldia arkituko dezute, nere
ustaria biguiñā da-ta, nere zama bañiz ariñā.

geak (los impíos) diote «*bide latzetatik ibili gera, gaiztakerirako bidetxiurëtatik lasterka, nekatu gera*». Deiak eskatzen duan erako sua ez duten lekaide lekaimiei, apaldasunik eta mendetasunik ez dutenei, egi-egiz erantzi ditezke oar auek. Oker auek zuzentzea baño neketuago da biotzeko arokeria piztea ta norberaren naia iñori zailki ezartzea; onela gure baruan azten diran sugeak, gure naigabe ta baruko atsegabeen bide diran sugeak, lenengo eragozkaiian zoñozki guri elduaz; okeren auez ekiñik auldu ta iltzen ditugu. Ta Goiko-atsegiña guk gogoratzera, zer? Betiko saria iristen diguten ekandunak bai erazak izango zaizkigula! *Serapindaña* bezin sutua dan *Pantzeska* (Franciscus) Aita Deunak onela esaten zuan «*Daramadan guzia ariña da, iristeko ustea dedan goralbenari begiratuta*. Gogoko-bideetan diran eragozkayak izutzen ba-gaituzte, gauza auek eta onelakoak irudimeneratu ditzagula; alaz ere gogo bularñtsuak eragozkai auetzaz geiago sutzen dira edozer egiñaiari beroki ekitera, berauen-

tzat egikizunetako eragozkairik andienak, eramakizuneko nekerik izugariena atsegingari, berakgatik ainbeste egin eta eramaman zuanagatik egitean eta eramatean; augatik (Jesus) maitasun neurigabez maitagari da, beragatik anei (mila) aldiz ilda ere, Bere izenean gutxi egin dala egiz siñistu bear.

Beara. Egin diran asmoak gure onerako ta atsegiñak ezpalira ere, zail zailak balira ere, berauek zuzen - zuzen bereraziko lizkiguten bideak itz onetan dira, *beara*. Ikasgai au betetzen ezpadet zorigabea, ni erorbide izugarietan egongo naiz beintzat. Erabaki dedana ez da utzi litekeana, egin-beara da. Paul Deunari bear-beara zitzaion Bialdu (Apostolu) sutsua izatea, berak itz auetzaz dionez *goizpaña zabaldu bearak eraiten dit; nere zorigabea ori ez betetzera!* Onelaxe nere buruari esango diot. Nere zorigabea apal ez izatera! mendeko ona ezpanaiz! lurreko uskeriak oinpetzen ezpaditut! nere burua ilduratzen ezpadet! zintzoki ezpanaiz on-bideratzen! Egin zaidan deiak, nere bizierak onetara beartzen nau; bete-

tzen alegin ez egitera, ez naiz donokiratuko (zeruratuko); beñipeiñ galzori andian jariko naiz. Bearko bitatik bat: Kistorena izan nai badet, zintzoa, deuna izan bear. Goizpar deunbiderako arauak betetzea ona dala esatea ez da naikoa, nere kaltegabe bete ez ala utzi ditzakedala gogoraturik, bestela oso, berauek bete bear, ori ez egitera nere burua ezin baitin arkitu, ta ala izatera nere zorigabea! Zintzoki, arauz bizita ez diot Jaunari saririk emango; ori egiñik ere mirabe ezgauza naiz, zintzoki ta arauz bere mirabe ez izatera ostera, oben egingo diot. Beara dalako indarduna da donetasunik goieneko gauzefarako ere, nik oiek ezagutzera ta orek betetzeko Jaungoikoak ots egiten badit; bada berauetan zintzoa ez izateak eta Jaungoikoaren deiari ez erantzuteak gaitz andiak ekañilitzakit, auetatik andiena da, Jaungoikoak ni uztea, zintzoa, esan - egilea ez naizela-ta.

Gure naiari erabakiazitzeko indar andidun zegati au, oso zailak deritzagun gauzetan batez ere erabili-bear da, bai-

ta nagikeriak motelduta, eragozkaiak bildur-tuta gogoa arkitzean ere; onelakoetan batez ere gogoa piztu ta berotu bear da, onela esan badezakegu, epelak diranei aurrean jaririk, Jaungoikoak egin dizkioten zemaik (amenazas); onelakok aotik botako ditu; eriotza ta epai bildur-garia ere izango dute.

Ara, beraz, ikasgai-egikoia beteaziko diguten gaien galdeari nolaz erantzun. Geldi - geldiro gogoratu bear da berau, gure ekanduna izan ez dedin ustegabekoa ta aldakoa, bai ordea adimenak ongi ezagutu ta on-iritsitako gauza sendo, izatez-gañoekoetatik sortua. Aldi onetan ikasbideak jari bearrik ez da; egin dan azalben geldia naikoa da jaritako ikasgaia gauza askotarako izan dezagun. Orain jaraituko degu beste galdea adirazten.

Irakasgai au nola bete det gaur-daño?

Aldi onetan asiko gera azterkaldi legea egiten, gere gogapeari galdezka, gogartean daukagun egiari dagokionez,

nola izan geran, bera jaíaiz egin bade-
gu, eskerak Jaunari, bestela beriz bañen-
-bañendiko lotsaz eta alkez bete, ta etor-
kizunari begiratu. Ez da érez siñistu
bear, azaldu dan ikasgaia ondo bete de-
gula guk iritsi añen; onetan gure buruen
maitakeriak eta gere ezaguera gutxik
gezurtatzen gaitualako, gure ekandu-
nen bat iritsi degula guri siñistuazita;
guretzat oldozkun txurikatzailea izaten
da berau. Askotan gertatzen zaie onen-
beste askaldian ari diranei; onelakoak,
ikasgairen baten naikoa argi izan ez-
kero, iritsi dutela uste dute ekanduna,
artarako zegati eta bideak ezagutu di-
tuztela-ta, betetzeko garaia izan arñean;
ekandunik batere iritsi gabe orñela, egun-
oroko oarñ ilunak erakusten digunez.
Gere apaldasuna ta lotsa izatera alegi-
ñak egin bear ditugu, ikasgai ura bete
ez degulako, ala egikizuna uts geigiz
egin degulako, eta Jaungoikoaren eskar-
ak eskatzen digun eraz ez, baizik beste-
la bete degulako gere buruari oben-
-ezarñiaz. Aldi onetan egoki izango da
azterñtzea gure ekanduna ta okeña adiraz-

ien duten erak eta gertaki bereziak. Norbaitek galdetzen badio erabat bere buruari ludi zalekeria oinpetu duan ala orain oinpetzen duan, baliteke berak uste izatea baietz erantzun bear duala; baña aztertu bitza isekak (burlas), ezesprenak, apal-bearak, ain laztanki ez artua izatea, bere utsak auez aue entzun beara ta besteak okertzat artzeak ematen dion biotzaldia; ta au egindakoan beste erara bere buruaren epaia emango du, uskeri ta ludikeri zalea dala aitortu bearako, beraugatik ez du ludia, uste zuenez, oinpetzen; bestera beriz egoki aldietan nola oi dan asteru beza, baita inork goralitzen duanean eta askotzat artzean ere, ta abaretan; onelakotan barendiko poza ta asea badu, jakin beza oraindik ez duala ludia oinpetu. Berebat egin diteke gorutz - zalekeri ta onginaiaz ere; itz batez esateko, ekandun eta oker orotzaz. Azterpen nagusi ustariaz (de pura teoria) atsegin izaten badegu, batere uste gabe sinistuko degu okerak garaitu ta ekandunak iritsi ditugula; baña azterpen bereziagoa, zeagoa eginik, on aiek uruti ditugu-

la siñistuko degu. Oregatik alde onetatik bereziki atera bear degun irabazia da Jaungoikoaren aurrean geranaz bañendiko ezauera, onela gure buruei obenata txara ezartzen diegula, Jainko - Andientzaren aurrean bera-beratu gaitezten.

Gaurtik aurrea zer egin bear det.

Adimenak aldi onetan bilatu ta aterako ditu, naimenak bereala egin bear dituan asmo onak. Emen ere gauza berezietara jo bear, batez ere eragozkai andietara, geiagotan oi diranetara, egun artan izango diran ala izan litezkenetara, gogoraturik gogartetu dan egiari jaraitzeko nola oituko geran. Ez da alperik izango, len aitatu diran zegatiak, beñiro bururatzea, naimena orela eñazago jarita, garaipen goralgarirako sutu dedin. Ikasbideak utzi ditezkelan deritsat, len esan danaz gai au adigarria dalako.

Zein eragozkai kendu bear ditut?

Zein bide aukeratu?

Ikasgai au oraindano betetzea zerk

eragotzi dit? Bertatik obeto betetzera zerk lagundu dezakit? Arau nagusiak sail onetan ematea ez da érez, eragozkaiak eta bideak gogalgai bakoitzaz eta gogańtea egiten duanaren izakeraz ez diralako berdińak; augatik, norberak egiten dituen obenak eta utsak gogorata, otoitz-gaia onetarako danean, marazki aztertuko du, ia geikeri au nondik dan? zerk eragiten dion? Etzaio dana adionari ezańi bear; oben oarńkabeetan, uste-gabeetan, adionari (ocasi3n) begiratu bear, obena uzteko; augatik oarńtu degu, ustegabeko utsak, oben oarńkabeak ez egiteko asmoak, bereziak izan bear dutela utziko dan adionaz; bańa gure girńetatikoak diran obenetan, adionak uztea bezin beara da norberak bere ardua izatea ta biotz onez garaitzea; ez ordea oben loietan, auek iges-egińik, ez dira egiten. Aserekońa danak, adibidez, ez du uste izango biguntasuna iristeko, gizon-emakume au ta ura, gertaldi bat eta beste eragozkai dala; onela uste-izatea okeńa litzake; sińistu beza norbera dala obenbidea, beregan bere gogoan

duala girña, auxe ilduratu bear duala, ez beste bidetatik iges-egin.

Eragozkai nagusiak iru dira batez ere: arókeria, gorpuzkeria ta gogo-on-dapena: auen auéz iru bide ditugu, apaldasuna, norberaren garaipena edo ildura ta gogo-bildasuna (recogimiento); auei ezañi litzaieke, ezarki antzera, Jaungoikoa auéan eukitzea, biotz-otoitxoa, gogarítean oartu ditugun zegatiken (arazoién) sañi oroitzea, ta azkenik arduraz gure gogoari auéa artzea, askotan oben-egiten degun aldietan; oartu bear da, len adirazita ditugun zegati nagusi baten daudela auek guziak.

Kendu bear diran eragozkaietzaz eta artu bear diran bideetzaz, esan dana naikoa da; alaz ere norberak adi - adi gogoratu dezake, Jainkoari argia eskatuta, eragozkaia ta osabidea; ta auéeratzeko gogo ona izanik, ezagutuko du ongi, Jainko eskañak argituta, Buru ta Artezkari diranak esanda, siñismenaz argitutako ezaguerak erakutsita. Auetxek dira adimenak egin ditzaken galdeak; au zuzen egiten badu; gogaríte

egiteko gaia izango du. Gogartetik ateratako egi batez oldoztu ondoren, bigarnera ta irugarneratuko da, gero beriz besteetara, guziak ala batzuek beintzat berizturik.

3. Naimena nolaz erabili.

Naimenaren egitekoak bi dira gogartean. Lenengoa, Jaunzaletasuna piztea, bigarrena asmo ala erabaki onak eraltzea; berak - gabe gogartea ezin izan otoia, ikasaldia ta gogorapen utsa baikik, ain bearak dira berauek.

Naiak.

Naimenak lenen egin beak duana, esan degunez, Jaunzaletasuna piztea da, ala ekandunetiko zenbait erakarpen ala baarendiko egipen eragin. Gogarte osoan zaletasun auek izatera lan-egin beak degu ta askotan, gogartea otoi-izatea beragandik da - ta. Gure biotzetan beti piztuta egon beara dan Jainko-eskararen Jainko - maitasunaren sua, egingo diran gogorapenak piztuago egingo dute; ber-

auek izango dira gañez ezañitako eguñra, maitasun-su andia egiteko. *Nere gogañ-tean sua piztuko da.* Gauza añigariaren oldozpena gogañtean soñtzen bada, Jaungoikoak egiñak oi diranez, ortik soñtuko da naimena geldu ala añitu - naia. Jaungoikoak egindako onak adirazten zaizkigu; berauetatik Jaungoikoa goraldunaia, Berari eskeñak egin - naia, maite - naia. Jainkoaren aseñeak eta zemaiak (amenaza) ikutzen digunean bilduñra izaten da; oñela, gaia aldatutakoan, biotzaldi berdiñeza oartzen da; gogañtea dagienak obenak eta utsak gogoratzean, ikutuko diote berari apaldasunak, lotsak, garbaiak eta otoi - naiak.

Biotzaldi auek nola soñtu? galdetzen badidate, jakin bezate oñetarako itz eder goiti beañik ez dala. Biotzaldiak biotzean, ez mingañean; gizon - emakumeen antzera ezin itz - egin Jaungoikoari, aiek gure biotzaldiak ondo adirazten ezpadizkiegu, ez dituzte aditzen - eta. Jesu - Kistogure Jaunak dio: *Itz jarioz adituko zaio - tela uste duten siñisgabeen antzera ezazute itz asko esan otoi aldian.* Oar

onek bai dirudi gogarterako dala. Ederki ta goiti esaten ez dana biotzez ez dala nai, uste dute zenbaitek, gizon-ema-kumeen oniritsia iristen dan antzera Jaungoikoarena ere itzez iritsiko balitz baño areago. *Itzaldika baño intzirika obeto itz egiten zaió Jaungoikoari*, ala dio Augustin Deunak. Eresietan eta Idazteuneko (Salmos y Escritura) beste alditan Jaungoikoari egindako deadañak aitatzen diranean adirazten dira, ez aozkoak, gogokoak bai, onela biotzaldiak sutsuagoak diralako. Gai onetaz ederki ta zabalki, berak oi duanez, idatzi zuan Rodriguez Aitak (1. zatian, 5. iztiko 12 buruan). Naikoa da aldi onetan esatea ez gerala ardura geiegiz aritu beañ gure biotzaldiak adirazteko itz-bila; itzik arkituko ezpagendu ere, biotzez bakañik ondo esanak izango dira. Egia da bai, biotzaldiak, berauei dagozkioten itzak dituztenean, berotu ta pizten dirala; ez da beaña orde auek ugariak, banatuak izatea, are obetzat degu gutxi ta apaingabeak izanik, sañitan beñiztu eta gogo - bañenan izaten baditugu. Biotz

-aldia adirazteko ditugunean Idazteuneko itzak ala Doibatzaren (Eleizaren) otoietakoak, ala gai on baterako diranak, auetxek egiz onenak, igurtzi berezia izanik, Jaungoikoari atsegiñago zaizkiolako.

Ikasbideak yañi ta adirazi dezagun Jaungoikoak egindako *esker-oneko* gauzak gogoratu ondoren erasanda eskañ-on biotzaldia adirazteko, *zer eñazago*, Igarlearekin (Profeta) esatea baño: *Eman dizkidanaren ordañez zer emango diot Jaunari?* Bitañtean bururatzen bazait nor naizan ni, ontañtez betetako au, eta Jaun ongilea nor dan? esango det: *zer eman dezakiot Jaunari, berak egin dizkidan ontañteen ordañez?* Gogoraturik gero on auen andia, eñez biotzaldia piztu ditek; adi-adi, geldiro itz berauek esanaz: *Eman didanaren orde z zer emango diot Jaunari?* Esker-oneko biotz aldia pizteko on-onak dira Jakob Erkabaren (Patriarca) itzak ere, eskerak egiteko egoiki-ederak baidira. *Jaun ori! zure Eñukietatik txikiena baño ni txikiago;* onek adirazten du bere ezerezaz zuan bañendiko ezauera; au dala-ta ain andia dan

Jaunak begiratzeko aña ere ez dira gizon - emakumeak; gañera Jaungoikoari Bere erukirik txikienaz ere eskeñak guk egin eziña adirazten dute. Jaungoikoaren Erukirik txikienak baño gu txikiago. Beste itzak ere gauza baterako izan ditezke, ta besterik ezik esan ditekete: *Jaungoiko ori! eskeñak zuri!* au biotzez esana bada, eskeñ-oneko biotzaldi edeñada, idatzita dagolako Jaungoikoak biotzari begiratzten diola, ez itzari.

Gere ezereza gogoraturik apaldasun-naia pizteko, zer erazago esatea baño: «*Jaun ori! egiz zure aurrean agertzeko iñor ez naiz. Zer erazagorik, itz auek gogoratutakoan edozein tokitan Jaunaren aurrean agertzea gogoratzea baño, naizana izanik Jaunaren aurrean agertzeko zergatik iñor ez naizen? eta onela apaldasun biotzaldiari eutsi ta berau piztu? Onetarako, Eneko Deunari jañ aiz, izan ditezke itz auek: Gorputzez zer naiz zikin - zoñoa ta ar janaria baizik? Gogoz beriz ainbat oben-zoña jario izan duan eta darion zauri sakon-zoñetsua, ta zatañ izate au ere Jaunari eskeñi. Apo-*

kalipsisko itzak ere aritu ditezke: *Bai zorienttsua naizala! txiroa, erukaña, itsu-ezereza*: Ta auxe bakarik esango bazendu ere: «*Bai ezereza ta naskagaña naizala!*» apaldasun - biotzaldia izango dezu. Itzetan ez itzei bakarik begiratu, biotza ere artara dedin lan egizu. Biotz-aldi askotarako ezez bildu ditezke esari labur asko, Idazteunetik, Doibatz-otoitzetatik, eta gizon-emakume deunen itzetatik; norberak bilatu ta beretu ditzake otoi-aldian saritan beriztuaz, esariak duan biotzaldia sutu nai izatean. Bear bada inork bilatuta baño norberak obeto autuko lituzke, guziak ez diralako berdiñak berotzeko, eta zenbaitzuk batzuetan besteetan baño biotzaldi andiangoak izaten dituztelako. Ao-otoiak, geldiro egiñik, gogoko gauzak ezez irakurtzen dituztenak, ezez ikasiko dute nai diran esariak biltzen, gero otoi-aldian berizteko ta au egiñik biotz-aldi auek iristeko; laburak izan ditezten lan egin bear, beren indara ta mamia aintzat eta askotan artzen eta berauek gure ezagun egiten. Gizon-emakume deun askoren ikasgaiak onela egi-

tetik ditugun onak erakusten dizkigute.

Ez degu utzi bear' aldi onetan, Eneko Aita Deunak egiteko esaten duan oara, au da, biotzaldia degunean berotu dezagula al aña, zearo aseta gelditu arte, beste saletaratzen leiatu gabe; adibidez, apaldasuna ta gere ezerezaren ezaguerazko biotzaldia degunean, len aitatu dan esaria beriztu ta aztertuko degu: «*Egiz edonun inor ez naiz Jaungoikoaren aurrean*» ala beste onelako bat; bañen-bañendiko ezagueraz eta gogoki gere ezereza bañuan izan arte biotzaldi au gere biotzean izateraño; gogartean au besterik egingo ezpalitz ere onurakoña izango litzake-ta.—Biotzaldia epeltzen ari dala oartzean, jañi diran saletako bestera aldatuko gera.—Gure apaldasunerako ala ezespenerako biotzaldiak ez diranean, adibidez, pozezko ta uste-oneskoetan eta abañetan, berauek oso deunak, onerakoak izanik ere, auetan erazago gezur-tatu gaitezkelako, luzaro egongo bagiña ala sañitan aldi osoa beteko balitzakigu, gure gogoko Artezkariari esatea ongi litzake, zuzen jañaitzeko.

Otoi-aldi osoa biotz-naiz betea izan bear da, naiz oroimena, naiz adimena erabili. Nornaik, almenak erabiltzeaz esan dana ez aztutzera, érez aditu dezake zenbait biotzaldi berez sortuazi ditezuela eta are geiago, egokia izan litekela ber-
auek aztea. Lan-egin diteke beintzat siñismen-biotzaldia lenengotik eukitzera, baita bear ere, bere garaiz jañi zanez, onetarako esanaz: *Siñisgaiak onela diolako siñisten det*, bestela beriz: *Be-titandiko Egia zeran oñek esan dezulako siñisten det*, baita onela ere: *Zuk esan dezulako siñisten det, eta gezuñ dioten gizon - emakumeen antzekoa etzera zu; goi-beak aldatuko dira, zure itzak ez dira utsak izango*. Azkenengo esari au Jesu-Kistoren Itzaz ala Idazteu-neko esariaz gogartea danerako egokia da.

Asmoak

Naimenak gogar-tean gerorako asmo onak arñtu bear ditu; Kistotañen biziera gogoratu ezkerro bear-beañak dira, auek

gabe ezin naimenak ezer egin. Ordubete Jaunari emateko bakarrik ez da gogartea, okeñak gogotik kentzeko ere bai, ekan-dunez betetzeko, biziera zuzendu ta osatzeko, Jaungoikoaren mirabetzan gu sendoagotzeko, erorbide ta ziltzaldien aurrez gu gogortzeko, azkenik, egikizun guziak zuzen eragiteko gertu gaitezten; au dana ezin iritsi, ostera, aurrez asmoak egoki egin gabe. Au dana, esaten degunez, gorabera andikoa dalako, onetzaz geldiro aritu bear, Jaungoikoak nai duanaz erakuspen batzuek jariaz.

1. Erez ezagutu diteke asmoak noiz artu, au da, adimena erabiltzeaz jardun genduanean esan zanez, gogalbeneko erakuspenak gogoratu ondoren. Egingo diran galdeetatik bat auxe da. Gaurtik zer egin bear det? Onen erantzuna asmoak dira, baita egingo diran birena ere. Zein eragozkai kendu bear dira? Zein bide artu bear? Galde oietatik adimenak ontzat artutakoa egitera naimena jaritzen danean, erabaki au asmoa da; augatik ordea otoi-aldian zerbait egiteko ala egingabe uzteko agertzen danean, dago-

kion asmoa ar̄tu diteke; baña artarako garaia da, gogartetik irabazia bezela dalako, adimena artara jāri dedin egi-ten diran galdeen ostean. Galde auek gogārteko edozein sāletan egin ditezke, ta adibidez, lenengoan gogorapen egitekoak izan badira, ondoren galdetzen da, gero bēriz adirazi diran gogorapene-
tzaz asmoak egin. Len jāri diran ikas-
bideak gai au argi ta garbi azaltzen digute.

2. Asmoak egiteko dira, au da, egiz indartsuak izan beār gure biziera zuzendu ta osatzeko; ez dira izan beār otoiren bat egiteko, adibidez, eriotzaz gogartea egindakoan, ia ilik daudenen aldez *Aita gurea* ta *Agūr Maria* esatea erabakiko bagendu, ala Neskutz edo Birjiña deunari otoi au ala ura eriotza ona iristeko. Asmo auek onak dira, ez ordea naikoa, egin beār ez degun zerbait uzteko asmoa ere ar̄tu beār; batez ere izendatu beār zuzenduko diran utsak, iristeko lan egin beār degun ekanduna, ilduratu-ko degun gir̄ña ta onenbeste nola iritsi. Auetxek dira asmo egikōrak.

3. Asmoak ez izan bear gauza guzietako; bakoitzerako baizik: onetarako gogoratu liteke bigarren eta laugarren galdeaz esan dana edo: «*Zer ikasgai atera bear betetzeko? Nola bete det orainarte?*» Bi eratarara izan ditezke bereziak: 1. asmoak bereziak diranean, 2. gauza guzitako asmoan zerbait bereziki egingo dala erabakirik: adibidez, «*Ez-bear orotan eramakoia izatea erabakitzen badet*, asmoau guzietako da, beraz oso gogoi - deunak diranei bakarrik egiten die on: berezitu dezagun; bi eratarara iritsiko degu au: 1 esanaz: *Gertaldi onetan eta beste artan eramakoia izango naiz*, nere eramanezinarri eragiten diotelako oartuta naukatenak adiraziaz. 2. Ez bearen bat dedanean gogoratuko zait: *neri zor zaidan geztokiaren aldean naigabe txikia dala*; bestela beriz: *Gurutzean il zan Jesusen maitasunagatik pozik eramango det*. Bietara izango da asmo berezia, ona beraz; baña obeago litzake bietara berezituko balitz, adibidez: *Onelako ta alakoetan eramango det ildura, ariña dala gogoraturik, irabazi nuan geztokiari*

begira ta abar. Onela asmoaz batera bete bidea arkituko da.

4. Gure gogokerari dagozkion asmoak izan bear, buruan degula bosgañen galdeaz esan dana: Auñerakoan zer egin bear def? Onez gañera esan dezaket orain, asmoak ez dirala izan bear berandu betetzeko, adibidez, gazte danak zartzarorako ala jaupari (apaiz) danerako egingo balu. Geienetan asmo auek ezertarako ez dira, irudipen andietarako bide bai. Gogokerari dagozkionak izan bear beraz, bereala izango degun bearari dagozkionak beintzat.

5. Egunean bertan betetzeko. Biziera zuzentzeko ta deuntzeko zerbait erabaki bear da, ta egunean bertan beteko dana. Arduraz gogapea (conciencia) aztertzen dutenak eta beragan oartuta, ala Buru ta Artezkariak esanda, utsak egiz zuzendunai dituztenak, ezez egin dezakete berau. Aitatu diran utsak auñean eukitzera ta biziro baruan izatera ezez irudimeneratuko dira, eta gogañtea bera dana - dala, zuzentzeko izango da; Jaungoikoaren maitasunaz ala Berak obendiei egiten

dizkien zemaietzaz (amenaza) ala Jesu-Kistoren Nekaldi ta gertaldi goralgarrietaz, ala gure obenetzaz eta gizon-ema-kume deunetzaz gogartea egitean, egiteko asmoa izango da beti okeñen bat garaitzea. Egunoro utzen bat daukagunean, eragozkai bereziren batek Jaunaren mirabe izaten uzten ezpadigu, ala mirabe onak geranean geldi-azotzen badigu, lei andiagoz egin bear auxe; onelakoetan indar guziak, *danbada guziak*, ala esan baditeke, girñaren kaltez izan bear garaitzeko: ortik atera gogalgaiaskotan azterketa berezi gaia berberadala, azterketa au ere gogarte eginda érezten da.

6. Asmo sendoak izan bear, edo bide sendotikoak: au iritsiko da, irugañen galdea geldiro egitera. *Erabaki egitekoa zergatik beteko degu?* Gai onetaz len esan dana ikusi beñero. — Askok egin-beara ikusirik, bereala erabakitzen dute; oñen nai gertua izatea goralgari da, alaz ere onelako asmoak saritan, ondar-gañean oñarigabe egindako etxearen antzekoak izaten dira; lenengo zil-

tzaldian ala eragozkairik txikienean erortzen dira. Oregatik asmo sendoak izan ditezen, oñari sendoak euki bearko, edo Betitandiko egiz sendotuak, eginda ala egingabe utzi beař dan gauzaren beara, ala egokia ala zuzena adimeneratuta. Ez da naikoa berauek bein eta beriz neuritzea, zergatik egin ala egingabe utzi ondo dakigulako ustez; bestela oso, oldozkun auek saritan beriztu beař dira, batez ere geiena uts eragiten digutenak, adibidez, arokeria garaitu ala apaldasuna iritsi nai danean, ala estutzen gaituan okerren bat kendu ta beara zaigun ekanduna iritsi nai izatean; au dana zergatik egin beař dan? gogoratuta biotzeratzen da; auei gogoratu dan gaiaz egipenak ezartzen bazaizkio, ekandun oikuntza iritsiko da.

7. Apal-apalak izan beař asmoak, au da gere indaraz batere itxedon gabe. Apaldasun gabea dala-ta ez dira betetzen, batez ere Jainkoaren mirabe onizateko asmo egizkoz erabakita egin baziran. Gogarztean asmo sendoa egiten da ala ta onela izateko gertaldi jakiñe-

tan; asmo ura zergatik duten jakiñik beteko dutela uste dute, agiri ez dan uskeriz; alaz ere lenengo gertaldian geienetan erorten dira; ez asmo zintzoa ez dutelako, apaldasunik etzutelako bai; geregan eta gere indarretan ustea jarita egin giñuzelako, Jaungoikoak, Erukia ta Zuzena baida, gure andi-ustea beratzen du. Asmoak egiterakoan beraz gure sendorik - ez, aultasunaren bildur izan bear, uste osoa jaririk Jaungoikoaren laguntzan, *Maria* Neskuts zoriontsuari, gotzon (aingeru) Zaitzaleari-ta ots-egiten aztu gabe, esanaz gutxi gorabera itz auek: *Alaxe erabaki det, nere Jainko ori, alaxe egin nai det orain... alaz ere zure laguntza gabe ez det beteko, Jaun ori. Nere sendorik-eza ta gaiztakeria naikoa ta geiegitan oarikasi det nere asmoetan uste izateko. Zugan itxado-pena jari det, ez naiz inoiz nastuko.* Asmo au betetzeko garaia danean zure Eskaraz lagun egidazu; garai artan ere, Jaun ori, adirazi nere adimenari, zure eskaña lagun, orain aditu dedan egia; sendotu nere naimena. Jauna, zertarako

det zure argiz argitzea ta eginbeara aditza, nere zorigaitzez egingo ezpadet? Lagun zadazu, bada, Jauna, zure izenaz eskatzen dizut, Jesu-Kistoren irabaziz, bere odol bikañaz, bere biotz deun-deun sutsuaz. Lagundu zuek ere, nere bitarteko deunok. Zuk batez ere, Jaungoikoaren Ama ta nereza zeran Neskuts Deunak, ainbestetan nitzaz eruki izan zeralako, lagun egidazu, zure seme Josugandik esker au iritsi: Gotzon Zaindari deun ori! eror-zorian biotzera itz-egidazu, begiratu galdu ez nadin eta abar. Gora-bera andikoa da oar au, eta alegin andiagoz bete bear berau, saritan gure argal izatea oartu degulako. Au egiñik, asmoak betetzerakoan naimena indargabetzen bada, bear tu dezagun, bere aurrez jardun, artara jari, batez ere bear dala gogoraturik, lenago irugarren galdean jari danez, eta Jainkoaganatu bear berokiago gure gogo auldua indartu dezan.

§ 3.

Gogañte - amaia

1. *Aita gurea ta Agur Maria* esanaz amaitu oi da; orain ez degu amai onetzaz jardun nai, onen aurretik gogañtea amaitu baño len beste egipen batzuek izaten dira: auetzaz esan nai det zerbait. Oi danez otoi - aldian asmo asko arñtu diranean, egoki-egokia beriztea ta ontzat arñtea azkenean; bada gogorapena egingakoan berauek egingo badira ere, garai onetan gogañtea egin baño len uztea, ez da egoki: Onela beste onaz batera iritsiko degu au ere, gogañteko azken-uneak beroak izatea, bestela azkenerako, bero izan bearñik, otz-otz izaten gera. Otoi-amaian beraz, gogañte sailak amaitzean, gogoratu dana eta asmo guziak bururatu ditzakegu. 2. *Aita gurea ta Agur Maria* esan ondoren Eneko Deunak *izketa* (coloquio) izena jañi zion otoia esango da, Jaungoikoari ala Nes-kuts deunari, gogañteari begira. Izketa onetan oarñtu dezakegu biotzaldiaz len aitatu dana, edo, itz-bila ez gerala aritu bearñ, barñuko naien bila bai ordea; izketa

au adirazteko ez degula itzik eia era onik bear: adirazi bitza biotzak naiak. Izketa onetarako ikasbidea saspigaren uaran jari da, asmo berauetzaz apalak izan dituzela esanik. Otoi-aldian artutako asmoak, guziak ez izanik ere, garai onetan batu bear dira. 3. Izketan, oraingo bearari dagokion asmorenbat ere ezari dezakegu, naiz gereaa izan, naiz inorena, naiz gure buru diranak, naiz guk otoi-egitea nai duanen batek eskatua. 4. Oidan otoi *Aita gurea* ta *Aguir Mariaren* ordez, beste edozein izan diteke, Eneko Deunak onela dio, eta *Aita gurea* ta *Aguir Mariaren* aurretik *Anima Christi* esan oida askotan; berau obeto egin diteke Jesu-Kistoren gertaldietzaz gogartea danean: eta Gogo-Deunaz (Espiritu Santo) danean, *Veni Creator* ala *Veni, sancte Spiritus* esanaz, amaitu diteke: Jaungoikoaren ontartetzaz danean, *Te Deum*'az; gizon-emakume deunetzaz danean, bere otoiaz, buruz badakigu ala idaztiz (liburua) geritu eukitzera; inoiz ez ordeatu utzi bear esangabe *Aita gurea* ta *Aguir Maria*. 5. Azkenengo ao-otoiak bakara

ez danean, izketa artean banatu ditezke egoki aski: onela erakutsi du Eneko Deunak *Aita gurea*, *Aguñ Maria* eta *Anima Christi* jaririk. Neskuts Deunaren bitartez eskatu deiogula nai degun eskaña, bere seme-Jainkoagandik iritsi dezaigun, eta ondoren *Aguñ Maria* esango da. Jesu-Kistoren eruki-eske geranean, bitarteko Nagusia Bera izanik, eskatuko diogu Aita Jaungoikoagandik iritsi dezaigula bear degun eskaña, ta Bera emalea izanik ere goi-beetako al osoa eman zaion ezkerro, ta *Anima Christi* esaten bada ere; betitandiko Aitari Jesu-Kistoren bitartez eskatuko diogu eskar bera; *Aita gurea* ondoren esanik, oña otoi-aldia amaitu.

Au egindakoan, agur-egiñaz Jaunaren ondotik aldenduko gera, alaz ere bere aurretik kendu gabe. Gogarte ondoren ardura andiz ondapen dana utzi dezagula. Atera-alditan eutsi arduraz *erari* (modestia), igaro zaigun ordubeteko irabazia une baten galdu nai ezpadegu. Otoi-ostean azterkaldia; onetzaz oraindik zerbait esan bear.

III BURUA

Gogarte ondoren oartu bear dana

Eneko Deunak aginduta, gogarte ostean azterkaldia izaten da, edo esaten denez oarpena; berau gogarte egiten ikasteko ta andik irabazi andia ateratzeko, ez da egoki - egokia bakarrik, beara ere bai. Egunoro gogarte egiten eta berau ez dakiten asko dira, oarpena egiten ez dutelako, ala okeak baizik egiten ez dutelako: egunoro otoi-egiten dute, betiko egietzaz gogarte ere bai, berauek argituta biziera ontzeko asmoa artzen dute; ala ere lengo girnak bizirik beren gogoetan, lengo okeak eta utsak ezarita, oarpena ezertzat eta askotzat artzen ez dalako orela oi-da. Eneko gure Aita Deunak jaritako arauetatik baterez alperik: orok batuta daude, katearen eskunen antzera; oietatik bat ausi ala azkatu ezkerro, alperik bera, ez beintzat egokia egin zan asmorako. Aita Deunaren aginduak agindutzat artu, ez erakutsitzat bakarrik; oregatik, uzten baditugu, ia ezin iritsi eskarik gogarte lan sailan

aureratzeke. Askotan eta ongi gogarte-
dagiana arau-emale onena. Jakin, beraz,
gogarte ondorengo oarpena ezin utzi
ditekeala eta bear-bada, gero zearo lan-
petuta izango bagina ere, gerok ezari oi
ditugun otoiak uztea obe; auek goral-
gariak dira bai, baina oarpena bezin bear-
ak ez. Eneko Deunak, dirudienez, egin
dan azterkaldia bakarrik agindu bazuan
ere, ia bear-beara da beriztea ta laburpe-
na (resumen) egitea; oregatik oarpe-
naren bi zati izendatzen dira, edo oar-
pena ta gogarte-laburpena.

1. *Azterkaldia.* Otoialdia amaituta-
koan gogoratu dezadala, nola egon nai-
zan: onetarako gerkun (preparación)
eta gogarte-aldian egin dana oartu bear:
gerkunaz, adibidez, onela: «aureko egu-
nean otoitzgai - sailak ongi irakuri ala
entzun ziran: gogoa bilduta euki degun:
oeratutakoan lo artu baño len gogarte-
-gaia bururatu ote zitzaigun; goizean otoi-
-egin ote degun, beste gogoetak kendu-
ta; garbitzean, eta txadonera ala beste
tokitara joatean gogarteari dagozkion
naiak piztu ote ditugun; gogoa nare euki

ote degun, gogalben auretik batez ere; sailak beriz irakuri ala bururatu ote diran; gogarteari ekin auretik geldituta, Jainkoaren aurrean jaririk egikizuna gogoratu ote degun: au dana ikusi bear gerkunaz azterkaldia egitean.

Gogarteaz gogoratu bear da *askaldia, jarraipena ta amaia*. *Askaldiaz* begiratuko da nolako aguraz adi ta bero egin degun gerkun-otoia; aurretikoak ondo bete ote ditugun, bigarena batez ere, gogartean nai dana iristeko argia ta eskaera eskaturik. *Jarraipenaz* begiratuko da gogo-almenak nola erabili diran, oroimena, otoi-gaia ondo neurtzeko, adimena, bertatiko galdeak aztertzeko, adibidez; beratza zer gogoratu bear genuken? zein ikasgai atera bear betetzeko? ta azkenik gogalbenaren beara, ona ta egokia ondo ikusi diran eta abar. Naimenaz oartu bear ia gogartean erabili dan, atera bear ziran naiak ateratzeko; biziera oberako ta donbiderako asmoak zintzo artu ote ditugun; asmoen ondoren laguntza apalki eskatu ote degun. Sail auek guzitan gogoratu bear degu ia

bestetarako oldozpenak garaitu ote ditugun ala oretarako alegiñak egin: kaltez genduan naskaldia garaitu ala ezetsi genduan, ori orela izanik ere gogoa al degun erarik onenaz erabili degun ia aurretikoa gure irudimenari gogartea-eragiten laguntzeko zanean artara jo degun; azkenik ia gogarteko azken edo amaiari dagozkion gauza guzitara leiatu geran.

Azkenaz begiratuko degu beroki ala su gabe izan geran Jainko eskaña eskaturik; otoi-amaian izaten dan aztuna ala logure-antza astindu ote degun; ia geldiro ta lotsaz amaitu degun. Lenbizitik azkenera Jainkoaren eskañari nola erantzun diogun gogoratzea egoki izango da: ia gogoa zintzo erabili dan, gorputzari dagokionez beriz, ia eradun izan geran, barutik eta agiriz lotsati agertu geran, otoia bearik gabe utzi ala laburtu degun; eta bear andia izan badegu, gure gogoa nare ta bilduta euki degun. Azterkaldian egin litezken galde asko gogoratuta, geiago ere egin litezke, ez da ikaratu bear; gogartea nola

egin dakienak. laster ezagutuko dituzte egin diran uts guziak, gogapeak ala adirazita; otoi zatiok aztertuta edo *gerkuna*, *askaldia*, *jañaipena ta amaia*, ez du érez utziko igari-gabe, ezta uts bakara ere. Irabazi andigabe otoia egin bada, dio Eneko Deunak, garbaituta edo damututa begiratuko det, zergatik orélakoa izan dan eta oneratzeko asmoa artuko det. Aitatu diran sañei jañ aiz, érez ikusiko da utsa zergatik egin dan; irabazia zergatik dan txikia. Ezertan ikusten ezpada oroitu gerkun *urutikoa* nola egin dan, egunaz euki dan biltasuna, egikizunak bete-beñ a, biotzeko garbitasuna, ildura-naia ta abañ; egia da bai, Jaungoikoak sañitan zigortzen dituala otoialdian, otoi-auretik egindako utsak; eta bestela beriz, Bere mirabetzan izan dan berotasuna otoialdian ederki ordaintzen du: onela ere otoialdiko irabazi txikia zergatik dan ezagutzen ezpadegu, siñistu bañuan dagola ixilik zergati ori ta beraldu gaitezen, bañ a geiegi estutu gabe, gure naia Jaungoikoarenari batuta; orélako garaian beriro gogoratu di-

tzakegu Eneko Deunaren itzak: «*garbaituta edo damututa begiratuko det zergatik? eta oneratzeko asmoa artuko det.* Ara azterkaldia zertarako dan; gogarte egiten erakusteko ta zuzen egitera oituazitzeko. Aita Deunak esana egunoro guk egitera, érez, Jainko-eskara lagun, gogarte jakintza iritsiko degu. Otoia ondo egin danean, ala dio berebat Eneko Deunak, Jaungoikoari eskerak egin bear dizkiogula ta erabaki bide aiek berak artzea beti otoitzerako, era artantxe, berotasun berdiñaz.

2. *Beriztea* ala laburpena gogarte osoa oroitzea da lenengo, bigarren eta irugarren sailan esan dana, eta onela egindako utsei begiraka gaudenean, edo uts aiek berak adimeneratzen zaizkigunean, bat batean ikusiko ditugu bakoitzetiko asmo betebearak zergatik diran, berauek atera dizkiguten biotzaldiak ala eragin dizkiguten asmoak. Argi berezirenbat artutakoan ala goiargirenbat bestetan baño argiago artutakoan, zergatik ala esaera batek gure gogoari gogor eragiten badio, egoki izango da bertan gelditzea,

len erabilia bein eta beriz bururatzea, egindako asmoak sendotuz eta betetzeko garaia izendaturik, beti aurrean eukirik, al izan ezkerro, betetzeko erak.

Au dana ordu laurdena baño gutxiagotan egiñala izanik ere, (garai auxe Eneko Deunak jañi zuan), alaz ere zortzi - amar iroiren bear, bi-iru ez-dira naikoa. Gogoko bizieran egiz aurreatu ta donetu nai dutenei beren oar-ikasi zorionekoak esango diote, are obeto, aitatu dan oarpena nola egin. Onelakoentzat, gogarte-irabazia lez izango da, beraugabe galduko ziran; gertatuko zaie gañera gogartean alperik bila ibili ziran Jaunzale-atsegiñak oarpenan edo azterkaldian arkitzea, ta len legor bazeuden, gogogabe, asmo onik etzutela, beren eruz ala erugabe, oarpenak, Jaungoikoa lagun, dana ordainduko du: beraz gogartean bezin asmo onak artuko dira. Norberaren oar-ikasiak gai onetan geiago erakusten du itzak eta idatziak baño. Siñistu eziña, aditu - eziña da Jaunaren ona, zintzo gogo - gauzetaraten diranei Bere eskarak laguntzean, sutsuago,

arduratsuago berauek egin ditzan, baita onela Jaungoikoaren esku zabaletik eskañ andiangoak artzeko gai izan ditezen ere.

Oarpenari ezarri litekena da, askok, irabazi andiz beren asmoak betetzeko jarraituta, eman diguten ikasbidea. Egin dan gogarteari ala artu diran asmoei dagokioten biotz-otoia: berau egun buruan batzuetan berituta, gogartea ta bertako asmoak bururatzen zaizkigu.

Gogarteko irabazia azterkaldi berezirako uzten bada, esan danez, gogoko aurerapen andia iristen da. Gure asmoak egin ala uzten ditugu berauek eragiñ zizkiguten egiak gure adimenan liluratzten ala iltzen diralako; oregatik gogoan iraunazitzen dituan gauza da asmo berak pizteko bide egokia. Betiko egiak urean eukirik, berauei dagokienez bizi-aldiko egite guziak egitera zintzo-zintzolan egin dutelako, augatik bakarik donetu dira gizon-emakume deunak.

Ez da ezetsi bear egin oi dan oara, eta onbidea iritsi nai dutenei eraza zaie berau, au da, gogartetik ateratzen diran

zenbait esaera ta arau idaztea, gero sar-
itan irakurtzeko. — Goiargiak eta asmo-
ak ere idatzi bear; auek idazten badira,
zergatik artu ziran ez idatzirik, geiene-
tan ez dute indarik izango, gu bearitzeko
betetzera. Oartu, beraz, lenengo argiak,
au da, ongi adimeneratu zaizkigun egi-
ak, ezagutzeak, oldozkun onak, gure
gogoari asmoak eragin zizkiotenak. Au-
ek eta aiek egoki-aldietan irakurtzean,
erabaki dana zintzoki betetzera piztuko
gera. Oarak ez izan bear luze luzeak,
garbiak bai-ta laburak; arau guziak ida-
tzi bearik ez da, andienak naikoa dira,
edo egunoro betetzeko ez diranak; egun-
oroakoak idatzita baño egiñaz geiago
gogoratu bear ditugulako. Gogo-iñarku-
netan (ejercicios) idatzi bear, batez ere,
argiak eta asmoak, berauetan ez dalako
lan-egiten egun bateko egikizunak zu-
zentzeko, ezpada urtebetean eta zenbait
gauzatan bizialdi osoan izango degun
biziera zuzentzeko.

AMAYA

Onetzaz aski dira egin diran oarák. Lan au amaitzeko, askaldian esan dana beriztuko det, edo gogartea gizon-ema-kume deunen iakintza dala, eta Gogo-Deunaren igurtziz eta naimenaren gogo jaunzalez baño gutxiago ikasten dala gizonen esanaz. Egia da bai, oraindano jarri diran legeak ezin obeto ikasita ere, ez gerala batere aureratuko gogoko bizieran, irabazi andia egiteko nai bizigabe; nai on au eta legea betetzea bera ere ezertarako ez, Gogo - Deunaren eskarak lagundu gabe.

Au ez da gizonen lana, Jaungoikoarena baizik. Ezin ez-bai egon; nai dutenei iritsiko die Ontasun eta Eruki neurigabea duan Jaunak; gogoko bizieran aureratu naia ere ezin esan anako emaita da, Jaungoikoak emana.—Geretik jarri ditza-gun beraz al ditugun bideak, Jauna-lagun, berebat saritan Jaunagana gaitezen deadarka: *Jaun ori, otoi egiten guri erakutsi, gogartea egiten erakutsi, otoi*

-emaia iritsi. Beraz batera on guziak iritsiko ditugu; bera baida neurri-gabe-ko dirutza gizon-emakumeentzat; darabiltenak Jainko-maitasuna iritsi dute; ariñariak beren erakusgaiak.

iGora Goiko Jauna!



JAUNGOIKO-ZALE'REN IDAZTIAK

Jaungoiko-Zale. Amabosteroko aldizkingia. 12 ingoski ta edergaři askogaz.

Urteko arpideak: Berau bakařik 5 lauerleko.

» » Beste idazti batzukaz 8 »

«**Eleiz-Ořia**» ĩorokoa. Pařoko jaunak eliztařai emoteko.

Arpidea: 100 oři, lauerleko 2; 300, 5; 500, 9.

Urte gustirako nai ĩlabete batzuetarako bakařik arpidentu leiteke.

Pařoko jaunak bialtzen dabezan idazkiak eta euren eleizarako iragaři ta oařak ipiņiko dira.

Bederatziuřenak.

Bederatziuřenak egiteko idaztirik ez egoala ta, utsuna au betetako, uřenego ipinten doguzanak argitaldu doguz gauř arte; beste batzuk be laster egiteko asmoz. Geyenak gogarte laburtxoak eta egoki-egokiak daukez, eta Deun ĩņaki'rena da luzetxoa, bestiak naiku labuřak.

Bakotxa eřial baten saltzen dira. Deun ĩņaki'rena, baņa, lau txakuřian.

Andra Maria Sorkundia'rena.

Zorundun Beřiotxoa'tař Balendin'ena.

San Antonio Abata'rena.

Loyola'tař ĩņaki Deuna'rena.

Josu'ren Biotz Deuna'rena.

Deun Eřoka'rena.

Jose deuna'rena.

Ama Naigabetua'rena.

Sebasten Deuna'rena.

Beste batzuk:

Garbitokiko arimaen ila.

Azila'n naiz edonoz garbitokiko arimai asko lagundu gura ba-dautsezu ta zeuretzako asko ikasi ta zeure burua obatu gura ba-dozu, Eguzkitza J. U.'ak egin eban idazti (liburu) au erosi egixu. Ila gustiko egun bakotxerako gogarte sakon, egoki, mamintsu, guna askodunak dakaz. Arima aldez bederatziurēna egin gura ba-dozu, bertan iru autu ziñaikez ta irurok aututa gero, iru-urēn bat geratzen yatzu.

Izki edera, euzkera ezeza, garbia, gogua gozo-gozo eginda izten dauna.

Merkez merkiagorik eziña. Azal ederduna bakotxa 1'50 lauerleko. Azal meduna 0'75.

Otoi-idaztiñua.

«Vilariño Josulaun Abak egin ebanetik euskeraldua. 1919, *Jaungoiko - Zale*'ren Irarkolan. Zornotza. (15 x 10) 192 orialde.

Jaungoiko-Zale'k atera dauen idaztiño au euskal-kistařentzat onuratsua izango da. Zortzi urte onetan hi miloi inguru zabaldu dira onetari-ko erderazkoak. Agiri da ba, idaztiñoa berez egokia dala. Dakařen euskerea, bariz, garbi ta argia da» (Jesus'en Biotzaren Deya).

Saneuría lauerleko 2, ederto azalez tuta.

Andra Maria'ren lorefako ila.

«Izen onekin atera du *Eguzkitza*'tar Jon apaiz jaunak Maria'ren ilabeterako liburu edo idazti eder-edera ta oso merkea. Euskera erax, gozo, eritaraž egiña dago ta ezta noski euskeraz beste orielakorik atara egundaño. Gañera azkenean Loreil-abesti edo kantuak ere bost badakartza. (Irugařengo Prantziskotařa).

Saneurija 1'50 lauerleko ta azal obiaz 1'75.

Zerurako bidea.

Oyarzabal'dar Martin yaupariak egingako eleiz-idaztiñoa. «Jaungoiko-Zale»k egindako 200 ingoskitik gora daukozan idaztiño baria; bi ataletan: bederatzi gogalkunde egi betikořatzaz ederki ekařiak eta kristiñau-biziereai dagokiozan otoitz egoki pila.

Arima-yainkozaliak gogalkunde bidetik eroatea onena da-ta, idaztiño onen erdia baño geiago gogalkundiatzaz egiñaz artez dagozala deritxogu, batez be onetari-ko idaztiak euskeraz urı dagozan ezkerro. Guztien onerako berau zabaldu daitela gura-gura dogu. (*Bitoria-Obispo'ko Boletin'etik*).

Saneurıa lauerleko 2.

Edesti-Jaungoya.

Munduaren asikeratik asita Apostoluekanaño-ko jasoeren edesti laburıa; ikastoletan-da umiei irakasteko egoki-egokia. 78 ingoskiduna.

Saneurıa 0'50 lauerleko.

Gurutz bidea.

Porto - Maurizio'ko Leonardo Deunak egin ebanetik euskeraldutako idaztiño au samur-samurıa ta biotz-ikutzalea da benetan.

Azal bigunaz erıal bat, gogořaz lau erıal.

Gogalben-erakasbidea saneurıa laurleko 1.

María Birjiña alazgilliaren etxe-ikerkundia
Erial bat.

Otoño nekazkafuaren domua. 10 zentimo

Goznarkera efaza. 20 zentimo.

«**Nekane**» **antzerkia.** Bederatzi neskatilak egiteko Tene'k idatzia. Bakotxa 20 zentimo.

Oritxoak.

«Ikasi eta egin». Eleiz atetan eta edonun eufez zabaltzeko orain arte onexek egin dira:

1 Belguntza-gomutakija.

2 Izan zaitez garbija.

3 Siñismen zabalgundia.

4 Deun Ander Abelin.

5 Guazan dotriñara.

6 Aprika'ko jazopena.

7 Josu Biotz-Dontzuazko zaletasuna.

8 Garbitegia.

100 orri saltzen dira laurleko batan.
500, lau laurlekotan.

Jesus'en Biotz-irudi burmezkoak.

Atean ipintekoak. Idazkuna, batzuk Bizkaiko euskeraz dauke ta bestiak Gipuzkoa'koaz. Bakotxa 50 zentimo. Asko artzera bakotxa iru txakur.

Idantzezki aundiak (cuadros) ingizkoak:

Jaureskunde edo entronizaziñorako egokiak. Bakotxa erial bat.

Bederatzi bariku jañaituetako Jaunartziaren gomutagañiak. Bakotxa 30 zentimo.

Lenengozko Jaunartziaren gomutagañiak. Bakotxa erial bat.

Idantzezki txikiak (estampas).

Euskerazko otoi-egokidunak
Begoña'ko Andera Miren
Arantzazu'ko Ama Neskutza
Lurdes'ko Sorkunde Erugia
Oreaga'ko gure Andereea
Tabira'ko Agurtzadun Ama
Josu-Biotz Deuna
Beriotxoat'ar Balendin

Amar' erialgaitik eun; ta ingi edo paper merkeagoan sei erialgaitik eun.

BESTE BATZUEN IDAZTIAK

Goi-izpiak.

Manterola' tar Gabirel jaupariak egindako olerki idazti edera. Bakotxa bederatzi erial.

Nere laguna.

Urteko jai guztietarako itzaldiak Lezo'ko Jose Aba Kaputxinoak eginak. Bakotxa 7 laurleko. Jaungoiko-Zale»ren bazkidiai 6 laurlekoan.

Mikel Garikoits Zorundunaren bizitza.

Galdos'tar Erromaldo josulagun edo Jesuitiak egin dau; butzuek lapurdieraz ta bizkaieraz dagoz, ta bestiak lapurdieraz ta gipuzkoeraz. Saneuria laurleko 2.

Jerusalen'go Osteran Amari idazkijak

Izurategi Eloio'ko paroko jaunak eginiko liburu eder atsegingaria. Bakotxa saspi erial.

Bitoria'ko Eleiz-bafulirako Kristiñau-Ikasbidea (Catecismo Diocesano).

Lenengo mailea	0,15
Iru maiak edo osuak	0,40

Asko artzera merkiago

